

la perfumeria

2018KO UDA

de Mercadona

EGUZKITIK
BABESTEKO
AHOLKU
GUZTIAK

GORPUTZA
HONDARTZARA
JOAN BAINO
LEHEN, JARRI
LERDEN

OPORRETAKO
LOOKA
LARRUAZAL BELTZARANA
ETA KOLORE-PUNTUAK

UDA

Efektua



ELECTRO

deliplus

Soul



LABURPENA

04 UDA EFEKTUA

Hondartzara joan aurretik larruazala zaintzeko behar duzun gida. Depilazioa, hidratazio handiagoa, zelulitistik gabeko zangoak, eguzkirik gabeko beltzaran-kolorea... Udari zukua ateratzeko prest?

13 ODA EGUZKIARI

Ez egin kasurik; eguzkia ez da zure etsaia. Zauden tokian zaudela ere astro nagusiaz gozatzeko behar duzun gauza bakarra da eguzkiaren aurkako babes egokia, eta eguzkia hartzeko arauak argi izatea. Arau horiek kontuan izanda, arriskurik gabe beltzarandu zaitezke.

20 ELECTRO SOUL

Urtaro berria iritsi da, eta argia eta kolore biziak dira nagusi garai honetako joeretan. *No make up* efektuko larruazalak eta orrazkera naturalak kontrastea egiten dute inpaktu handiko begi, ezpain eta azazkalekin, tonu biziakin margotuak, baita neonarekin ere. *Electro Soul* bildumak dena dauka. Ezagutu ezazu!

25 ART

Uda honetan, azazkalak dituzu oihala; jada ezagutzen duzu *look* bat goratzeko duten boterea. Zirrarak transmititzen dituzten tonu kartsuak. Ausartzen zara zure manikura eta pedikura kolorez betetzen?


29 BAI KOLOREARI

Udaz gozatzeko gogoak termometroarekin batera egiten du gora. Larruazal beltzarana, makillajea eta kolorez beteriko azazkalak. Oporretako *lookerako* prest?

Argitaratzailea: MERCADONA SA
Fuente del Jarro industrialdea
Ciudad de Liria kalea, 5. 46988 Paterna / Valentzia
Egilea: Ediciones ELCA
Inprimatzailea: Jiménez Godoy
Lege-gordailua: TO-0789-2008

Aldizkari honetan agertzen diren produktuak Mercadonaren produktu-aukera estandarri dagozkio. Batzuetan, espazio-arrazoak direla eta, gerta liteke produkturen bat ez aurkitzea. Mesedez, galdetu gure langileei. Doako alea; debekatuta dago saltzea edo komertzializatzea. © Aldizkariaren titularra MERCADONA SA da. Eskubide guztiak erreserbatuta daude. Debeekatuta dago aldizkaria eta markak edo logotipoak osorik edo partzialki erabiltzea edo erreproduzitzea Mercadonaren baimenik gabe.

Azalean



Hau darama modelook:
Art bildumako azazkal-esmaltea, 820 zk. koral segurua, eta 09 zenbakiko Fijo ezpainetako laranja tropikala.





UDA

Efektua

Hondartzara joan aurretik
larruazala zaintzeko behar
duzun gida. Depilazioa,
hidratazio handiagoa,
zelulitisik gabeko zangoak,
eguzkirik gabeko
beltzaran-kolorea...

Udari zukua
ateratzeko prest?





EDERTASUN-AHOLKUAK
Art bildumako azazkal-
esmaltea, 820 zk. koral
segurua, eta 10 zenbakiko
Fijo ezpainetako arrosa argia



1

2

3, 2, 1... beltzaran!

Izutu egiten zaitu udako lehenengo egunetan larruazal zurbila erakusteak? Hona hemen konponbidea: esfoliatu ondo larruazala

Dutxako gel esfoliatzailearekin (1), eta, gero, eman zure gustuko autobrontzeadorea. Gogoan izan funtsezkoa dela lehortzen uztea; itxaron minutu batzuk jantzi aurretik. Hona hemen aukerak:

Gorputz-esne autobrontzeadorea (2) —eman eta hiru ordura lortzen da tonu gorena—; **Paper-zapi autobrontzeadoreek** (3) eman eta hiru ordura egiten dute efektua, eta kendu egiten dira dutxan;

Berehalako beltzarantze-efektuko gorputz-gela (4)

lehenengo dutxarekin kentzen da;

eta **Beltzarantze-efektuko gorputz-hidratatzailea** (5), larruazalari kolore-puntu bat emateko pixkanaka, edo urte osoan mantentzeko.



3

4



5



Ilerik ez

Ez utzi depilazioa azken unerako; ez da komeni eguzkia hartzea depilatu aurreko egunean eta egun berean, larruazala gorrituta eta handituta egoten baita.

Deliplus depilazio-produktuen aukera zabala behar guztietara egokitzen da. Hautatu zurea, uda osoan larruazal leuna eta polita edukitzeko.

Potoko argizari beroa, azal sentikorrentzat berezia, Monoi lurrinarekin; ile motza errotik kentzen du. Kontuan izan mikrouhin-labeen gehiegi berotzen baduzu eraginkortasuna galtzen duela. **Argizari hotza bandatan, aurpegirako eta eremu txikietarako berezia**, azal sentikorrentzat. Erabiltzeko azkarrak eta errazak dira. Bandak, erabili aurretik, eskuekin berotu behar dira; hala, ondo aprobetxatuko duzu produktu guztia.

GIZONEZKOEN DEPILAZIOA

Gorputzean erabiltzeko da, bereziki egokia gizonezkoen ilearentzat. Eraginkorra da ile motzerako.

Gizonezkoentzako argizari hotza bandatan, bizkarrerako eta zangoetarako. Argan-eta ahuakate-olioarekin. Eta **Gizonezkoentzako depilazio-krema**, ilearen hazkundera atzeratzen duena.



Maisu-ukitua

Depilatu ondoren, eman beti crema hidratatzaile bat: larruazala gozatuko dizu, eta azkarrago leheneratuko da.

Depilazio osteko baltsamoak zure larruazala zaintzen du depilatu ondoren. Gainera, haren osagaiek ilearen hazkundera atzeratzen dute.

Hidratazio-plana

Udan, oporrak begi-bistan ditugunean, kezkatzen gaitu gehien larruazal polita edukitzeak. Askotan, aurpegian jartzen dugu arreta, eta ahaztu egiten ditugu gorputza, eskuak eta oinak. Behin betiko produktuak ditugu, urte-garai honetarako zure larruazalاک behar dituenak: erabiltzeko errazak eta erosoak dira, eta berehalako emaitzak ematen dituzte.

✓ **Hidra&Go!**, ezagutu hidratazio-kontzeptu berri bat *body milk* esprai honekin. Larruazala egunero hidratatu behar eta denborarik ez? Hidra&Go!-rekin oso erraza da: eman, igurtzi eta jantzi!

Body milk hau azkar batean urtzen da larruazalean, hidratatu egiten du, eta lurrin fresko eta bizigarria ematen du.

✓ **Dutxako gorputz-hidratatzailea**, larruazala egunero zaintzeko modu praktiko bat, azido hialuronikoarekin eta karite-gurinarekin aberastutako formulari esker, zeinek larruazala hidratatu eta leundu egiten baitute.

✓ **Aloe verazko gorputzeko olio hidratatzailea**, ezin hobea dutxatik atera bezain laster gorputza hidratatzeko: larruazala bustita ematen da; ondoren, lehortu eskuoihalarekin, eta larruazala dirdiratsu, leun eta hidratatua geratzen da.



Hau darama modelook: **Art** bildumako azazkal-esmaltea, 813 zk. arrosa alaia, eta **Color Fix 07** zk. koral-arrosa

Gogoan izan

Hidratatu baino lehen, esfoliatu, larruazala leun, dirdiratsu eta uniforme uzteko.

Hau darama modeloak: **Art**
bildumako azazkal-esmaltea, 820
zk. **korral segurua**, eta **Color Fix 08**
zk. **flash laranja**



Hau darama modeloak:
54 zk. mugurdi tropikala azazkal-esmaltea, eta **08 zk. flash laranja Color Fix** ezpainetakoa



Zaindu zure linea

Orain, inoiz baino gehiago, ez zaitez erlaxatu; kontuan hartu zure aliatuak.



✓ **Ordezko irabiakiak**, ezin hobeak udako gehiegikeriak konpentsatzeko. Ordeztu astean bi afari banillazko edo txokolatzeko irabiaki gozo-gozo batekin.



✓ **Zango arinak izateko anpoilak.** Egunean anpoila bat nahikoa izango da zangoetako zirkulazioa hobetzeko eta astun ez sentitzeko.



Gogoan izan

Tratamendu horien osagarri gisa, garrantzitsua da ariketa fisikoa egitea, dieta orekatua egitea eta ur asko edatea.

✓ **Drenapur makilatxoak**, andere-mahats beltzarekin, txikoria-belarrarekin eta te berdearekin. Prestatu hotzean, eta hartu egunean zehar, freskagarri bat izango balitz bezala.

Oinak salbu

Udako protagonistak dira. Prest zaude oin politak erakusteko? Zaindu itzazu, eta politak izateagatik nabarmendu daitezela. Horretarako, nahikoa da aldizka errutina erraz bati jarraitzea. Esfolia itzazu astean behin edo bitan, orpoetan arreta berezia jarri. **Oinetarako gogorguneen aurkako esfoliatzaileak**, zeinak apar-harriaren partikulak baititu, gogorguneak eta azal zakarrak murrizten ditu, eta krema hidratatzaileen efektua handitzen du. Oinak esfoliatzeko, komeni da hezeak edukitzea, azal hilak eta lehorrak ura xurgatzen baitu, eta, hala, errazagoa baita kentzea. Dutxa edo bainua hartu ondoren, lehortu itzazu ondo, onddorik ager ez dadin. Hidrata itzazu; lotara joan aurreko unea egokia izan daiteke. **Zartadurak konpontzeko krema ureadunak** sakonki hidratatzen ditu oin oso lehorrak, eta tenkatasun-sentsazioa arintzen du. Lazguneak eta babak dauden gune lokalizatueterako tratamendu gehigarria behar baduzu, **Gogorguneen eta maskurren berariazko tratamenduak** leundu eta murriztu egiten ditu.

Zure aliatu ikusezina? **Urratuen aurkako barrak** orbanik uzten ez duen eta oinak babesten dituen film ikusezin bat eratzen du. Gogoratu hura ematea gune arazotsuetan urratuak egin aurretik; inoiz ez zauriak egin ondoren, ezta haien gainean ere.

Freskotasuna eta arintasuna

Oin eta zangoetarako freskagarri indargarria.

Hautatu gustukoena duzun formatua (gela edo espraia) oinetako eta zangoetako astuntasuna eta nekea arintzeko. Ezinbestekoa izango duzu udako hilabeteetan; beroak estu hartzen zaituenean, freskotasuna behar duzu, arintzeko, goxatzeko eta indartzeko.

Stop zelulitisari

Hau da unea zelulitisari aurre egiteko. **Zelulitisaren aurkako efektu hotzeko gelak** aurre egiten dio, mikrozirkulazioa aktibatuz, drainatzea hobetuz eta larruzala freskatuz eta tinkotuz. Zirkulazio-arazoak eta zangoetako nekea arintzen ditu. **Gaueko tratamendu murriztaile intentsiboa**, zeinak itsasoko landare-aktiboak eta bero-efektu leun bat baititu, ezin hobea da ohera joan aurretik emateko, goranzko masaje zirkularrekin. **Zelulitisaren aurkako Viseger Pharma** emultsio fitoaromatikoak aktibo indartzaile eta bizkorgarriak ditu, eta urte osoan zelulitisa arrastoan mantentzen laguntzen du.



SIMPLY FLOWERS COLLECTION





UDA EGUZKIARI

Ez egin kasurik; eguzkia ez da zure etsaia. Zauden tokian zaudela ere, astro nagusiaz gozatzeko behar duzun gauza bakarra da eguzkiaren aurkako babes egokia, eta eguzkia hartzeko arauak argi izatea. Arau horiek kontuan izanda, arriskurik gabe beltzarandu zaitezke.



Modeloak **09** zenbakiko
Fijo ezpainenako laranja
tropikala darama

Eguzkitako babesa hondartzako poltsan eramaten dugu, eta badirudi horrek gure kontzientzia lasaitzen duela, baina behar bezala erabiltzen duzula uste duzu? Lehenengo akatsetako bat da ez erabiltzea gure azal-motarako babes-indize egokia.

Zein da nire fototipoa? Eta eguzkitik babesteko zer faktore behar dut?



Eguzkitik babesteko faktoreak (FPS) adierazten du zenbat minutuz egon daitekeen pertsona bat eguzkitan erre gabe.

- 1** **Begi eta ile argiak eta larruazal oso zuria duten pertsonak.** Beti erretzen dira, eta inoiz ez dira beltzarantzen. Halako larruazalak 10 minutuz egon daitezke eguzkipean erre gabe. FPS 50+ babes oso altua.
- 2** **Begi urdinak eta arreak, ile horia edo gorria, eta larruazal zuria.** Ia beti erretzen da, eta, batzuetan, beltzarandu egiten da. Erre gabe eguzkitan egoteko denbora: 15-20 minutu. FPS 30-50+ babes altua - oso altua.
- 3** **Batzuetan erretzen den eta askotan beltzarantzen den larruazal zuria.** Erre gabe eguzkitan egoteko denbora: 20-30 minutu. FPS 30-50+ babes altua - oso altua.
- 4** **Begi eta ile ilunak. Larruazal zuria edo ez oso beltzarana.** Arraroa da erretzea, eta beti beltzarantzen da. Erre gabe eguzkitan egoteko denbora: 30 minutu. FPS 15-25 babes ertaina.
- 5** **Larruazal beltzarana.** Oso gutxitan erretzen da, eta beltzaran oso bizia du. Erre gabe eguzkitan egoteko denbora: 30-45 minutu. FPS 15-25 babes ertaina.
- 6** **Larruazal oso iluna edo beltza.** Ez da erretzen ia inoiz. Erre gabe eguzkitan egoteko denbora: 60 minutu. FPS 6-10 babes baxua.

Beste akatsetako bat da udan bakarrik babesten garela eguzkitik; hau da, hondartzara edo igerilekura joaten garenean. UV erradiazio-maila handiena apiriletik irailera bitartean gertatzen da, 12:00etatik 16:00etara. Hori dela eta, urte osoan erabili behar dugu eguzkitako babesa. Halaber, produktu-kantitate txikia ematen dugu; ikus 19. orrialdeko "Zenbat babes erabili behar dut?" azalpena.

Eguzkitako esnea FPS 50+



Eguzkitako espraia FPS 50+



Larruazal sentikorretarako eguzkitako esnea FPS 50+



Larruazal sentikorretarako to go eguzkitako esnea FPS 30 Banakako sei zorro.



Eguzkitako esnea FPS 30+



Eguzkitako espraia FPS 30+



Beltzaran-kolorea azkartzekoa, ukipen lehorrekoa, FPS 30



Kontuz eremu zaugarrienekin

Sudurrak, belarriek, sorbaldek, garondoak eta oinbularrek sufritzen dute gehien. Eremu horietan maiz eman babes, batez ere eguzkia hartzen den lehenengo egunetan. Aurpegirako eta gorputzerako **Eguzkitako barra gardena FPS 50+** ezin hobea da eremu horietarako, formatu praktikoa baita eta erraz ematen baita. Gomendagarria da orbainetan, tatuajeetan eta azaleko orbanetan emateko ere, horietan ez baita komeni eguzki-izpien intentsitatea jasotzea. Probatu **Ezpainetako babesa eta eguzkitako crema 2 1ean FPS 30** berria; eguzkiaren eta hotzaren aurkako babes bikoitza urte osoan.



Ezpainak babestuta

Ezpainetako babesa FPS 15ek hidratatu, elikatu eta eguzkitik babesten ditu ezpainak.



Larruazal beltzaran, argitsu eta osasuntsua lortzeko errezeta zein den?

Ez zaitetz babestu hondartzan edo igerilekuan bakarrik, urte osoan baizik: paseatzera edo terraza batean kafea hartzea ateratzen zarenean, hirian, mendian, baita aire zabalean kirola egiten duzunean ere. Ez ahaztu larruazalak oroimena duela, eta eguzki-erradiazioa pilatu egiten dela. Horregatik da hain garrantzitsua haurtzaroan eta nerabezeroan behar bezala zaintzea, prebenitzeko.

Aliatu ezin hobe

Garrantzitsua da *after suna* erabiltzea eguzkia hartu ondoren. Beltzaran-koloreak gehiago irauten du, larruazala ongi hidratatzen du, eta elastiko eta leun mantentzen du uda osoan. Crema hidratatzaileek baino efektu zabalagoa dute. Erredura-sentsazioa arintzen dute, eta larruazalari hidratazio-maila optimoa itzultzeko eta zelula kaltetuak leheneratzeko daude formulatuta. Horrez gain, larruazala prestatzen dute berriz eguzkia hartzeko. **After sun leheneratzaileari esker, beltzaran-koloreak gehiago irauten du**, eta berariaz formulatuta dago urre-kolore polit hori denbora gehiagoz izan dezazun. Beltzaran-koloreak gehiago irauteko osagaiak beste hauekin konbinatzen ditu: aktibo leheneratzaile eta lasaigarriekin, eta E bitaminarekin. E bitaminak larruazala birsortzen du, eta zahartze goiztiarretik prebenitzen du. Gel-testuraren sentsazio freskoa gustatzen bazaizu, hautatu **Aloea duen after sun gela**. Aloe vera du larruazala lasaitzeko eta leheneratzeko, eta hidratatuta eta zainduta geratzen da.



Edertasun-aholkuak

- ✓ Eguzkia hartu ondoren, gomendagarria da ur epelarekin edo hotzarekin dutzatzea; hobe da ur beroa ez erabiltzea, are gehiago lehortzen baitu larruazala.
- ✓ Larruazalak hidratazio handiagoa eskatzen badu, eman **After suna** behar adina aldiz; gainera, freskatu eta goxatu egingo du.
- ✓ *After suna* hozkailuan sartzen baduzu, indartu egiten da egun eguzkitsu baten ondoren ematean duen ahalmen freskatzailea.


Gomendio garrantzitsuak



EGUZKIA HARTZEKO DENBORA Ez egon denbora gehiegi eguzkitan, eta saihestu erradiazio handieneko orduak (**11:00 eta 16:00 artean**).




HAURTXOAK ETA UMEAK Ez da gomendagarria 3 urtetik beherakoak eguzkipean eta zuzeneko argipean jartzea.



Eguzkia hartu baino 30 minutu lehenago eman babesa larruazalean, uniformeki eta ugari, erabat xurgatzen den arte, eta saihestu ehunekin ukitzea, orbanak ekiditeko.




AIRE ZABALEKO JARDUERAK Hartu neurriak aire zabalean jarduerak egiten dituzun bakoitzean.



Eman berriro eguzkitako babesa, **bi ordu pasatu badira, bainatu bazara, izerditu bazara edo eskuoihalarekin lehortu bazara.**



Hautatu zure larruazal-fototipoarentzako **FPS** egokia.



EREMU SENTIKORRAK Adi gorputzeko eremu sentikorrenei (**sudurra, belarriak, sorbaldak, garondoa eta oinak**), eta ez ukitu begiak produktuarekin.



HIDRATAZIOA Edan ura maiz, eta hidratatu larruazala eguzkia hartu ondoren.



Babestu zaitez **arroparekin, txapelarekin eta eguzkitako betaurrekoekin.**




Baliteke botika batzuek **fotosentikortasun-erreakzioak** edukitzea.

ZENBAT BABES ERABILI BEHAR DUT?

Eguzki-babesaren maila errespetatzeko, komeni da produktua adierazitako kantitateetan ematea. Dosia murriztuz gero, jaitsi egiten da babes-maila.


Aurpegirako...




Hatz bat krema




...edo espraiaien edo aerosolaren sei botaldi




Gainerako eremuetarako...



...bi hatz krema eremuko




...edo espraiaien edo aerosolaren hamabi botaldi.



Dibertsioa eguzkipean

Bainatu, jolastu, bizikletan ibili... beti umeen larruazal delikatuia zainduz. **Haurrentzako eguzkitako esnea** eta **espraia 50+**. **Larruazal sentikor eta atopikoentzako eguzkitako krema**, eta **Haurrentzako eguzkitako espraia 50+**. Eta eguzkia hartu ondoren? Goxatu, leheneratu eta hidratatu haien larruazala haurrentzako **After sun lozio**arekin, berehalako arindua ematen baitie bere aktibo lasaigarriei esker (aloe vera, mimosa eta ilena). Txikientzat, hautatu beti babes-faktore oso altuko produktuak, urak kentzen ez dituenak, eman errazak eta haien larruazala ondo zainduko dutenak.





ELECTRO

Soul

Urtaro berria iritsi da, eta argia eta kolore biziak dira nagusi garai honetako joeretan. *No make up* efektuko larruzalak eta orrazkera naturalak kontrastea egiten dute inpaktu handiko begi, ezpain eta azazkalekin, tonu biziakin margotuak, baita neonarekin ere. Electro Soul bildumak dena dauka. Ezagutu ezazu!



Eyelinera, 02 zk.
berde elektrikoa



Betile-maskara,
02 zk. berde
elektrikoa



Begietako
arkatza, 105 zk.
berde elektrikoa



Ezpainetako
distira, 01 zk.
korala




ELECTRIC SUMMER

Uda honetan, eman iezaiozu indarra zure **look**ari begirada berde elektriko batekin (02 zk. **eyelinera**, 105 zk. begietako arkatza eta 02 zk. betile-maskara). Ezpain mamitsuak, **Gloss** efektuko distirarekin, **Flash** kolore-ukitu bat emateko: 01 zk. korala ezpainetako distira, eta, azazkaletan, 832 zk. laranja neona esmaltea; dena Electro Soul bildumakoa.




Esmaltea, 832 zk.
laranja neona





PINK ATTRACTION

Moda-modako makillajea lortzeko sekretua? Begirada zehatzasunez eta kolorez delineatzen da 01 zenbakiko **eyeliner**ari, 104 zenbakiko begietako arkatzari eta 01 zenbakiko betile-maskarari esker; denak urdin elektrikoan. Ezpainetan, 02 morea distira, eta neon-ukitu bat azazkaletan 831 arrosa esmaltearekin.




Begietako
arkatza,
104 zk.
urdin
elektrikoa



Eyelinera, 01 zk.
urdin elektrikoa



Betile-maskara, 01
zk. urdin elektrikoa



Ezpainetako distira,
02 zk. morea



Esmaltea, 831 zk.
arrosa neona




BABESTU ZAITEZ
EGUZKITIK 

ART UDA HONETAN

AZAZKALAK DITUZU OIHAL

Jada ezagutzen duzu
look bat goratzeko
duten boterea. Zirrarak
transmititzen dituzten tonu
kartsuak. Ausartzen zara
zure manikura eta pedikura
kolorez betetzen?

Hau darama modeloak:
**Esmaltea, 815 zk. hori
dibertigarria** eta **816
zk. zuri positiboa, Art
bildumakoak** (edizio
mugatua). Ezpainetan,
**Cremosa barra 09 zk.
su-gorria**





A ZER KOLOREA!

Nahi duzu "manipedi" perfektua? Margotu azazkalak denboraldi honetako tonuetako batekin. Eskuak eta oinak **Art bildumako 818 zk. berde basatia esmaltearekin**, eta, ezpainetan, **Cremosa barra 09 su-gorria**.






ARTE EDERRAK

Urdinen ia tonalitate guztiek look udakoenak osatuko dituzte. **Art bildumako 817 zk. urdin askea esmaltea eta 10 zenbakiko Fijo ezpainetako arrosa argia.**

ZURE ESKU DAGO



PAPER-ZAPI BUSTIAK ~~=~~ KOMUNEKO PAPERERA



Hau darama modeloak:
54 zk. mugurdi
tropikala azazkal-
esmaltea, eta **08 zk.**
flash laranja Color Fix
ezpainetako

*Bai*koloreari

Udaz gozatzeko gogoak termometroarekin batera egiten du gora.
Larruazal beltzarana, makillajea eta kolorez beteriko azazkalak.
Oporretako *lookerako* prest?



Hau darama modeloak: **Iraupen luzeko begi-itzala, 12 zk. zilar urdina eta 13 zk. urre koloreko berdea**, eta, ezpainetan, Color Fix, **07 zk. koral arrosa**

Color Fix ezpainetako barra

Color Fix ezpainetako barren bi kolore berri: **07 zk. Koral arrosa eta 08 zk. flash laranja**. Ezpainek akabera matea eta zetatsua hartzen dute, belus efektukoa, eta kolore sakona eta iraunkorra, ordu luzez ukiturik egin beharrik ez izateko.



30 2018KO UDA

KOLOREAREN IRAULTZA

Berdea, urdina, arrosa eta laranja; zergatik ez? Tonu deigarriak makillaje ausartetarako. Iritsi da amets egiteko garaia: jolastu energia kromatikoarekin, kolore-blokeekin, askotariko testurekin... Ausardian eta jarreran dago gakoa.



Iraupen luzeko itzala - Edizio mugatua

Badakizu nola eman?

Haren arkatx-formatuari esker, zuzenean eman daiteke betazalean, eta kolore biziko emaitza ematen du. Emaitza arinagoa izan dadin, hatz-mamiarekin edo itzalen pintzel batekin difumina daiteke.



MARRUBIZKO MUSUAK TRÈS CHIC

Fruta horren kolorea udako egunetako protagonista bihurtuko da. Ezpainek eta azazkalek beren bertsiorik onena erakutsiko dute, retro ukitua emateko. Eta looka biribiltzeko, aurpegiak beltzaran-kolore arina eduki behar du.



Fijo ezpainetakoaren bi tonu berri: 10 zk. arrosa argia eta 09 zk. laranja tropikala. Fijo ezpainetako bikoteak bi motatako aplikatzaileak eta bi testura desberdin ditu. Lehenengo urratsa, belaki-aplikatzailea eta testura krematsua, kolorea emateko; eta, bigarren urratsa, pintzel-aplikatzailea eta gel-testura, distira emateko.



Hau darama modeloak: **Fijo ezpainetako**a, 10 zk. arrosa argia



Hau darama modeloak: **Fijo ezpainetako**a, 09 zk. laranja tropika

Azazkal-esmaltea, 39 zk. marrubi gozoa



EDERTASUN-AHOLKUA

Fijo ezpainetakoak behar adina iraun dezan, komeni da kolorea lehortzen uztea une batez, distira eman aurretik. Egunean zehar, nahi diren distira-ukituak eman daitezke. Makillajea eroso eta goxo kentzeko, gomendagarria da produktu bifasikoak edo iraupen luzeko kosmetikoak desmakillatzeko berariazko produktuak erabiltzea.



3

ZAINDU ETA BABESTU LARRUAZALA

48 ordu baino gehiagoko babes, onena nahi dutenentzat. Eraginkortasuna eta kontrola egun osorako. **Emakumezkoentzako eta gizonezkoentzako babes gehigarriko desodoranteak**, espraia eta bolazkoa.



4

ARROSA-KOLOREKO BIZITZA

Kolore moldakor eta gozonenetako bat. Gaur, inoiz baino gehiago, jarraitu iezaiezu haren bibrazio positiboari.

Hartu gogoan: **Azazkal-esmaltea, 18 zk. peonia leuna.**





Zelulitisari
aurre
egiteko
modu
berria



5

UDA ON

Oporrez ahalik eta gehiena gozatu nahi baduzu, sartu nezeserreen zure adatsa zaintzeko produktu egokiak. Babesa, hidratazioa, zaintza... baita tratamendua, testura eta finkapena ere.

Exotic xanpu eta ile-egokitzaille babeslea.

Kizkur malguak aparra, zure orrazkeraren azken urratsa, ilea moldatzeko eta finkapen iraunkorra emateko. B5 probitamina eta UV iragazkia ditu, kizkurrak naturalagoak izan daitezen eta mugimendua izan dezaten.



Sugarland



GORPUTZ-KREMEN SORTA BERRIA

Tentazio gozo-gozoa

Delipus

ART

Kolorearen artea zure
azazkaletan

